



# **Pandemiaren ondorioak herri ekimeneko euskal hedabideetan**

2020ko maiatza

## Aurkibidea

1. Sarrera .....	3
2. Hartutako neurriak eraginkorrak izan dira .....	4
3. Orokorrean ekoizpenari eutsi zaio .....	5
4. Oztopozk oztopo, hedapena ere bermatu da .....	6
5. Iazko martxoan baino 500.000 erabiltzaile gehiago .....	7
6. Murrizketa handiak publizitatean .....	8
7. Harpidetzetan aldaketa gutxi .....	10
8. Dirulaguntzetan murrizketarik ez .....	11
9. Lantaldeetan aldi baterako murrizketak.....	13
10. Egitasmo zehatz asko bertan behera .....	15
11. Ondorio nagusiak .....	17

## I. Sarrera

Aurrekaririk gabeko osasun-krisia bizitzen ari gara eta pandemiaren hedapena galerazteko hartzen ari diren ezohiko neurriak geure egitasmoetan ondorio zuzenak eragiten ari dira. Aurreko krisialdi ekonomikotik erabat osatu gabe eta hedabideen mundua bizitzen ari den eredu aldaketaren erdian, sektorea egonkortzeko bidean lehen pausoak ematen ari ginenean, krisialdi berri bat pairatzen hasi gara.

Egoera berezi honi aurre egin nahian erakunde publikoak aurrekaririk gabeko neurriak hartzen ari dira, hala nola herritarrak etxean konfinatzea eta ezinbestekoak ez diren aktibitateen etenaldia. Bada, komunikabideen kasuan, lehen mailako zerbitzu izendatu gaituzte eta ahal dugun guztia egin dugu lanean jarraitzeko, besteak beste, herritarrei pandemiaren inguruko informazio zuzen eta eguneratua helarazteko.

Lehenagotik ere argi zegoen komunikabideok betetzen genuen funtzio soziala, are gehiago euskara hutsean aritzen garen hedabideen kasuan, baina horrelako neurriek inoiz baino ageriago utzi dute euskal hedabideen garrantzia. Parean baina, pandemiari aurre egiteko hartzen ari diren neurriak komunikabideen bideragarritasuna baldintzatzen ari dira, besteak beste, geure ohiko diru-iturriei eragiten ari zaielako.

**pandemiari aurre egiteko  
hartzen ari diren neurriak  
komunikabideen  
bideragarritasuna  
baldintzatzen ari dira**

Herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea Hekimen elkartean biltzen da eta gure lanari esker, egunero, milaka lagunek euskarazko komunikabideak kontsumitzen dituzte. Gure lana ezinbestekoa da, estrategikoa, euskararen normalizazio prozesua garatzeko. Baina gure ekarpena ez da euskararen eremura mugatzen, informazio eskubidea edota adierazpen askatasuna bermatzeko ere garrantzitsua da gure lana. Eta ekonomiaren ikuspegitik ere gure ekarpena ez da nolanhikoa: elkarteko 57 enpresetan zuzeneko 500 lanpostu baino gehiago sortu eta mantentzen ditugu eta guztion artean, urtero, 25 milioi inguruko aurrekontua kudeatzen dugu. Argi dago geure jardunarekin euskal gizarteari zein bertako ekonomiari ekarpen garrantzitsua egiten diogula.

Gauzak honela, Hekimen elkartean pandemia herri ekimeneko euskal hedabideetan eragiten ari den ondorioak neurtzeko premia ikusi dugu, arazoari dimentsioa hartu eta eman beharreko pausoak definitzen hasteko. Horretarako bazkideen artean inkesta egin dugu (apirilaren 8tik 28ra) eta bazkide gehienek erantzun dute: guztira 39 erantzun jaso ditugu eta 39 erantzun horien bidez 57 hedabideri buruzko informazioa jaso dugu, izan ere, hainbatek galdesorta bakarraren bidez hainbat hedabideren inguruko informazioa eman dute. Urolako Komunikazio Taldeak esaterako, bakarra erantzun du baina bertan taldea osatzen duten 7 hedabideen inguruko informazioa eman du. Gauza bera gertatzen da Euskal Irratiak, Goiena, Goierriko Hedabideak edota Tolosaldeko Ataria bezalako taldeen kasuan ere.

Bada, 57 hedabide horien artean guzti guztiek dute webgune edo atari digitala, gehienek paperean ere eskaintzen dituzte beren edukiak, zazpi telebista dira edo telebista eskaintza dute eta beste bost irratiak dira edo irrati eskaintza dute.

Hauek dira beren komunikabide desberdinei buruzko informazioa eskaini diguten egitasmoak: Aiurri, Aldiri, Anboto, Arabako Alea, Argia, Barren, Berria, BLB, Dantzan, Elhuyar Aldizkaria, ...eta kitto!, Euskal Irratiak, Gaur8, Gaztezulo, Geuria, GITB, Goiena, Goierriko Hedabideak, Hamaika Telebista, Herria astekaria, Irria aldizkaria, Irutxuloko Hitzza, Jakin, Kanaldude, Kazeta, Kronika, Lea-Artibaialdeko Hedabideak, Noaua, Oartzualdeko Hedabideak, Oizmendi TB, Pila Pilean, Sustatu, Tolosako 28 kanala, Tolosaldeko Ataria, Txintxarri, Urolako Komunikazio taldea, Uztaro, Zinea eta Zuzeu.


Galdesortan pandemiari aurre egiteko hartutako neurrien inguruan galdetu diegu eta ekoizpenean zein banaketan egin behar izan dituzten egokitzapenei buruz. Nola ez, diru iturri nagusietan izan dituzten gora-beherei buruz ere galdetu diegu, alegia, publizitatean, harpidetzetan zein dirulaguntzetan izan dituzten ondorioei buruz. Beste atal batean lantaldeetan murrizketarik egin behar izan duten ere galdetu diegu eta azkenik, pandemiaren ondorioz egitasmo zehatzen bat bertan behera utzi behar izan duten ala ez. Ondorengo lerroetan azalduko ditugu atal horietako bakoitzean jasotako erantzunak.

## Pandemiari aurre egiteko

## 2. Hartutako neurriak eraginkorrak izan dira

Konfinamendu orokorraren eta ezinbestekoak ez diren aktibitateen etenaldiaren testuinguruan, komunikabideak lehen mailako zerbitzu gisa definitu dira eta herri ekimeneko euskal hedabideek lanean jarraitu dugu herritarrei euskarazko informazio zuzen eta eguneratua bermatu asmoz. Lanean jarraitu dugu bai, baina lantaldeak eta egitasmoak behar bezala babesteko neurriak hartuz. Hori da inkestan jasotako erantzunek erakusten dutena.

Komunikabide guztiek (%97) hartu dituzte lantaldeak babesteko oinarritzko neurriak. Hedabide bakar batek ez du inkestako aukera hori hautatu eta hori neurri zorrotzagoa hartu behar izan duelako izan da: jarduna eten dute ezin zutelako aldizkaria inprimatu. Oinarritzko neurri horiez gain hirutik bik (%64) ekoizpena babesteko neurriak ere hartu dituzte eta hamarretik bik (%21) egoera desberdinetarako protokoloak abian jarri dituzte. Azkenik, hamarretik hiru (%31) etorkizuneko eskenatokien aurreikuspenak egiten hasi dira.



Hedabideek, aukera zegoen kasu guztietan, beren lantaldeei etxetik aritzeko aukera eskaini diete eta orokorrean beharrezkoak ziren bestelako neurriak ere hartu dituzte ekoizpenarekin aurrera jarraitzeko. Oro har, hedabideek beren lantaldeak eta egitasmoak babesteko neurriak hartu dituzte eta beste hainbatek (handienek) egoera desberdinen aurrean jarraitu beharreko protokoloak zehaztu eta etorkizuneko eskenatokien aurreikuspenak ere egin dituzte.

Neurri horiei guztiei esker, ziurrenik, COVID-19aren birusak ez du eragin handirik izan herri ekimeneko euskal hedabideetan. Inkesta erantzun duten bazkide guztiak eta beren lantaldeak kontuan hartuz, ehunka langilek osatutako komunitate zabalean bi kasu baino ez dira zenbatu eta, garrantzitsuena, bi lagun horiek gaixotasuna gainditu dute. Orokorrean, hartutako neurriak eraginkorrak izan direla esan dezakegu.

Dena dela, inkestan jasotako iruzkinen arabera, etxetik lan egiteak bere oztopo eta zailtasunak ere badituela ikusten da eta kontziliazio mailako arazoak ere izan badira. Era berean, pandemia hedabideen funtzionamenduan eta diru iturrietan (publizitatean) eragiten ari den kaltea ere azpimarratzen da. Azkenik, kasu batean babeserako-maskarak eskuratzeko zailtasunak izan dituztela ere aipatzen da.

Aipatu bezala, hedabideren batek bere ekoizpena eten behar izan du inprimategiak ezin zuelako aldizkaria inprimatu, besteren batek langabezia partziala abian jarri behar izan du eta beste batek aldi baterako lan kontratuen etenaldia, ERTE delakoa, baina orokorrean, ondorengo atalean xeheago ikusiko dugun bezala, ekoizpenari eutsi zaio eta hainbat kasutan areagotu ere egin da, batez ere, euskarri digitalen kasuan.

**ehunka langilek osatutako  
komunitate zabalean bi  
kasu baino ez dira zenbatu**

## Pandemiaren ondorioak ekoizpenean


### 3. Orokorrean ekoizpenari eutsi zaio

Pandemiak ekoizpenean eragindako aldaketei dagokienez, orokorrean ekoizpenari eutsi zaiola esan badezakegu ere, euskarrien arabera egoera desberdinak ikus daitezke: irratieta ekoizpena murriztu dute, paperean etenaldiak eta murrizketak gertatu dira, telebistetan oro har ekoizpena mantendu eta webguneetan zein sare sozialetan areagotu. Baina ikus ditzagun xeheago emaitza horiek euskarriaz euskarri.

Paperari dagokionez (29 erantzun), gehienek beren ekoizpena mantendu badute ere (%52), hainbat hedabideek beren eskaintza murriztu edo eten behar izan dute: hamarretik hiruk (%30) beren papereko eskaintza eten dute eta %17k murriztu. Ikus daitekeenez, kasu honetan hedabide bakar batek ere ez du bere eskaintza handitu. Papereko eskaintza eten dutenen kasuan, arrazoi desberdinak aipatzen dira: banaketarako ezintasuna (ohiko posta zerbitzuaren etenagatik), lantaldeak babesteko hartutako neurria (inprentakoak, banatzaileak...), ohiko inprenta itxita, hainbat salmenta-puntu itxita...

Webguneen bidez egindako eskaintzari dagokionean (36 erantzun), nabaria da ez dituztela paperaren oztopo eta trabak izan eta orokorrean eskaintza areagotu da: hamarretik seik (%61) beren eskaintza handitu dute eta ia gainerako guztiek (%36) mantendu. Hortaz, oso gutxi izan dira murriztu dutenak (%3) eta kasu honetan hedabide bakar batek bere ere ez du bere webguneko eskaintza murriztu.

Pandemiaren eraginez ekoizpenarekin izandako aldaketak



Telebista bidez egindako eskaintzari dagokionez (7 erantzun), gehienek beren eskaintza mantendu dute (%72) eta %14 inguruk handitu egin du. Beren eskaintza murriztu dutenak gutxi izan dira (%14) eta kasu honetan ere, bakar batek ez du bere eskaintza eten. Irrati eskaintzari dagokionez (2 erantzun) bestelako egoera antzeman dugu: erantzun duten guztiek beren ohiko eskaintza murriztu behar izan dute pandemiaren ondorioz.

Azkenik, sare sozialetako eskaintzari dagokionez (36 erantzun), gehien gehienek, lautik hiruk (%78) beren eskaintza handitu dute eta gainerakoek (%22) mantendu. Kasu honetan ez da egon bere eskaintza murriztu edo eten duen hedabiderik. Datu hauek, webguneetako datuekin batera, argi erakusten dute hazkunde nabarmenena eremu digitalean gertatu dela.

## Pandemiaren ondorioak hedapenean


## 4. Oztupoak oztopo, hedapena ere bermatu da

Hedapenari dagokionez ere ahalegin handia egin da eta, oztopoak oztopo, herritarrei euskarazko informazio zuzen eta eguneratua helarazi zaie. Aurreratu bezala, arazoak nagusiki paperaren kasuan gertatu dira. Legalki paperezko egunkari eta aldizkariaren banaketa baimendua egon arren, ohiko posta zerbitzua hainbat astez etenda egon da eta zerbitzu hori baliatzen zuten hedabideek ezin izan dute beren produktua banatu. Era berean, banaketarako bestelako zerbitzuak edo boluntarioak baliatzen zituzten zenbaitek, paperezko ekoizpena edota banaketa etetea erabaki dute, inprentako langile eta banatzaileak babesteko.

Papereko eskaintza duten hedabideek ez ezik, gainerakoek ere egin behar izan dute aldaketa edo moldaketaren bat beren produktuen hedapena bermatzeko baina orokorrean gehienek berdin jarraitu dute. Zehazki hamar hedabidetik seik (%59), berdin jarraitu dute eta hamarretik hiruk (%28) beren hedapena egokitzeko neurriak hartu behar izan dituzte, alegia, gutxi izan dira (%13) hedapena bertan behera utzi behar izan dutenak.

**Hamar hedabidetik seik (%59) berdin jarraitu dute hedapenarekin eta batek (%13) eten behar izan du**

Pandemiaren eraginez hedapenarekin izandako arazoak



Esan bezala, pandemiari aurre egiteko abian jarritako arauak komunikazio jardunarekin jarraitzea ahalbidetzen bazuten ere, oztopoak edota zailtasunak ugariak eta anitzak izan dira: inprenta batzuek beren jarduna eten edo txikitu dute eta horrek zenbait hedabideri papereko eskaintza eten beharra eragin dio.

Bestalde, ohiko posta zerbitzua hainbat egunez etenda egon da eta horrek sistema hori baliatzen zuten hedabideei zuzenean eragin die. Era berean, hainbat salmenta puntu itxita egon dira eta horrek ere hainbat kasutan banaketa oztopatu du. Azkenik, hedabide batzuek beren langileak eta ingurukoak (inprentakoak, banatzaileak...) babesteko paperezko ekoizpena eta ondorioz banaketa etetea erabaki dute.


## Pandemiaren ondorioak hedapenean

## 5. Iazko martxoan baino 500.000 erabiltzaile gehiago

Aurrekaririk gabeko osasun krisi honen erdian hedabideok egindako ahalegin horrek guztiak alde goxoagoa ere izan du. Hedabideen kontsumoaren hazkundea joera orokorra izan da, mundu mailakoa eta pandemiaren inguruko interes informatiboak eta pandemiari berari aurre egiteko hartutako neurriek (bereziki itxialdiak), hedabideen kontsumoan hazkunde handia eragin dute. Euskal Herrian ere hazkundea nabaria izan da, bereziki euskarri digitaletan eta ikus-entzunezkoetan: irrati eta telebisten kontsumoak ikaragarri hazi dira eta hedabideen online atariak inoizko datu onenak eskuratu dituzte.

Nazioarteko fenomeno hori euskarazko komunikabideen kasuan ere gertatu da. Hekimen elkartean biltzen diren komunikabideetako 50 webguneetako hazkundea nabarmena izan da: aurtengo martxoan iazkoan baino 1,9 milioi saio gehiago batu dituzte (+ %80), ikusitako orrialdeak 3,6 milioi gehiago izan dira (+ %63) eta agian garrantzitsuenak, aurtengo martxoan iazkoan baino 500.000 erabiltzaile gehiago zenbatu dira (+ %59), atari horiek guztiak kontuan hartuz.

Erabiltzaileen bilakaera Hekimen elkarteko komunikabideen webguneetan



Jakin badakigu datu hauek biltzen dituen Hekimen Analytics tresnak erabiltzaile horietako hainbat birritan zenbatuko zituela, hainbatek euskarazko komunikabideen atari desberdinetan nabigatzen dutelako, baina lehen ere horrela zen eta ondorioz, hazkundea egon badago, nabarmena da.

Grafikoan ikus daitekeenez, apirilean apur bat jaitsi da kopuru orokorra eta ziurrenik, denborak aurrera egin ahala, zenbakiak apaltzen joango dira. Oso zaila izango da erabiltzaile kopuru horri eustea, ezinezkoa, baina argi dago euskarazko komunikabideak gero eta lagun gehiagorentzat erreferentzia ukaezina direla eta, abagune zailenetan ere, kalitatezko edukia eskuratzeko iturri garrantzitsua. Behategiak berriki argitaratutako artikulu honetan irakur daitezke azken hilabeteotako bilakaerari buruz datu xeheagoak: <http://behategia.eus/euskaraz-klik-eginez-ilustratzen-gara>

## Pandemiaren ondorioak

**6. Murrizketa handiak publizitatean**


Pandemiaren ondorioz gertatu den publizitatearen erorketa ere joera orokorra izan da. Joera lehenagotik bazetorren ere, martxoan, pandemiaren ondorioz, erorketa izugarri areagotu da, batzaz beste, %30eko murrizketa gaudituz. Erorketa euskarri guztietan gertatu den arren, gure inguruko herrialdeetan patroia bat errepikatu da: paperean are nabariagoa izan da, %50 ingurura iritsiz, ikus-entzunezkoen alorrean %25 ingurukoa izan da eta eremu digitalean %15 ingurukoa.

Horiek izan dira zenbaki orokorrak baina zer gertatu da herri ekimeneko euskal hedabideetan? Inkestaren emaitzetara itzuliz, bazkideen artean jaso ditugun datuen arabera, publizitatearen erorketa are nabariagoa izan da euskal hedabideetan: hamar hedabidetik zazpi (%69) publizitatean %40 baino murrizketa handiagoa izan dute. Zehazki, hedabide guztien %29 inguruk %80 baino murrizketa handiagoa izan du, %26 inguruk %60-%40 artekoa eta %14 batek %40-%60 artekoa.

Beste ehuneko txikiago batek (%17) murrizketa apalagoa izan du baina murrizketa azken finean: %11 inguruk %20-%40 artekoa eta %6 batek %20 baino txikiagoa. Ikus daitekeenez, oso gutxi izan dira publizitatean murrizketarik izan ez duten hedabideak, %14 baino ez.

**Hedabideen ia guztiek (%84) murrizketak izan dituzte publizitatean eta hamarretik zazpi %40 baino handiagoa**

Pandemiaren eraginez publizitatean izandako murrizketak




Ondorengo hilabeteetarako aurreikuspenei dagokienez, badirudi egoerak apur bat hobera egin dezakeela, baina orokorrean egoerak kezagarria izaten jarraitzen du. Ia hiru hedabidetik bik (%63) publizitatean %40tik gorako murrizketa izango dutela aurreikusten dute. Zehazki, hedabide guztien %17 inguruk %80 baino murrizketa handiagoa aurreikusten du, %23 inguruk %60-%80 artekoa eta beste %23 batek %40-%60 artekoa.

Kasu honetan, ondorengo hilabeteetan murrizketa apalagoa izango dutela aurreikusten dutenak %23 inguru dira: %9 inguru %20 baino murrizketa txikiagoa aurreikusten dutenak eta %14 inguru %20-%40 artekoa aurreikusten dutenak. Eta kasu honetan ere oso gutxi dira publizitatean murrizketarik izango ez dutela dioten hedabideak, %14 baino ez. Esan bezala, fenomeno orokorra da eta pentsa daiteke ondorengo hilabeteetan galdutako zati bat berreskuratuko dela, baina zantzu guztien arabera, tarte batean publizitateagatik izaten ziren diru-sarrerak ez dira pandemia aurreko egoerara itzuliko.



### Pandemiaren eraginez publizitatean aurreikusitako murrizketak



Oharretan jasotako iruzkinei dagokienez, hedabide askoren kezka agerikoa da: egoera luzatzen bada ezingo dituzte publizitateagatik 2020rako aurreikusten zituzten dirusarrerak bermatu. Oso zaila izango da hilabete hauetan galdutakoa berreskuratzea, besteak beste, hainbat publizitate salmentak garaitik kanpo zentzua galtzen dutelako. Oro har, martxoaren erdialdetik ekaina arte oso sarrera murrizak aurreikusten dira. Izan ere, oso gutxi dira egoera berezi honetan iragartzen jarraitu nahi duten bezeroak. Kultur ekitaldi eta antzekoen kasuan esaterako, bertan behera gelditu dira eta beraiekin batera aurreikusitako publizitatea. Era berean, hainbat ekitaldiren bueltan egin ohi diren produktu komertzialak ere (gehigarriak eta abar) bertan behera gelditu dira eta horiek diru-iturri garrantzitsua izaten dira herri ekimeneko hainbat euskal hedabiderentzat.

Tokikoen kasuan bezero gehienak merkatari txikiak izaten dira eta horrek ondorio zuzenak izan ditu izandako murrizketan. Beraiek ere gogor pairatzen ari dira itxialdiaren ondorioak eta, logikoa den bezala, askok beren ohiko publizitatea eten dute. Hainbat hedabide merkatari txikien ordutegi edota zerbitzu berezien eskaintza doan iragartzen ari dira eta berdin baserriarren kasuan ere, beren produktuak eskuratzeko aukeren berri emanez. Herritarrek beren erosketak bertako dendetan edota ekoizleetan egin ditzaten sustatzeko kanpainak ere garatzen ari dira. Zentzu honetan, gertuko ekonomiaren sustapenean herri ekimeneko euskal hedabideek betetzen duten funtzio soziala ere agerian gelditu da.

Datu hauen guztien arabera, pandemiaren lehen hilabete hauetan publizitatearen murrizketa izaten ari da herri ekimeneko euskal hedabideak gehien nabaritzen ari diren ondorioa. Galera hori hainbestekoa izan ez dadin, besteak beste, funtsezkoa litzateke erakunde publikoek beren publizitate txertaketak areagotzea. Herrialde askotan egin dute eta gure kasuan ere egin beharko litzateke, besteak beste, gu garelako euskarazko eduki eskaintza zabalena egiten ari den komunikazio sarea.


Informazioaren edota entretenimenduaren esparruan ez ezik, hizkuntzaren normalizazioaren eremuan ere, herri ekimeneko euskal hedabideon izaera estrategikoa eta funtzio soziala inoiz baino ageriago gelditu dira eta erakunde publikoek hori ere kontuan hartu beharko lukete beren publizitatea non txertatzen duten erabakitzerakoan.

## Pandemiaren ondorioak

## 7. Harpidetzetan aldaketa gutxi

Harpidetzen kasuan egoera ez da publizitatearena bezain larria baina egon badaude kezkatzeko arrazoiak, batez ere etorkizunari begira jartzen garenean. Pandemiaren ondorioz harpidetzetan murrizketarik izan duten galdetuta, hedabide gehien gehienek (%82) murrizketarik ez dutela izan erantzun dute. Bestela esanda, ia hamarretik bik murrizketaren bat izan du jada: %13 inguruk %20 baino txikiagoa eta %5 batek %20-%40 artekoa.

Pandemiaren eraginez harpidetzetan izandako murrizketak



Dirudenez, iruzkinetan jasotako oharren arabera, kasu askotan murrizketa horiek harpidedun berriak eskuratzeko kanpainak bertan behera gelditu direlako gertatu dira: ez da harpidetza kanpainak egiteko girorik aproposena eta pandemiak berak kanpaina horiek garatzerakoan oztopo eta zailtasun asko eragin ditu. Honela bada, oro har, ez dira harpidedun berriak lortzeko ohiko kanpainak egin eta urtero garai honetan izaten diren ohiko bajei pandemiarekin lotutako beste batzuk gehitu zaizkie (tabernak, ikastetxeak, dendak...). Oro har, horiek izan daitezke lehen aste hauetan harpidetzetan gertatu diren murrizketa txiki horien arrazoiak.


Edozein kasutan, badirudi aurrera begira zailagoa izango dela harpidedun berriak lortzea eta hedabideen lehentasuna dituztenei eustea izango dela, izan ere, aurreikuspenak ez dira onak. Etorkizunari buruz galdetuta hedabideen aldetik jaso ditugun erantzunen arabera, lau hedabidetik batek (%26) harpidetzetan murrizketak aurreikusten ditu, %16 inguruk %20 baino txikiagoa eta %9 batek %20-%40 artekoa. Argi dago, oraindik ere, gehiengo zabal batek (%74) ez duela harpidetzetan murrizketarik aurreikusten baina murrizketak aurreikusten dituztenen portzentajea orain arte izandakoa baino handiagoa da.

Dena dela, historikoki, herritarren ekarpenak izan dira herri ekimeneko euskal hedabideon diru-sarrera garrantzitsuenetako bat eta maiz, egoera zailenetan, biziraupena bermatu dien bakarra. Komunitatearen babesa izan da eta da, euskal hedabideon indargune nagusia eta ziurrenik horrela izango da aurrerantzean ere.

**Badirudi orain arteko murrizketak arrazoi teknikoengatik izan direla baina etorkizunera begira badaude kezkatzeko arrazoiak**

Jakin badakigu abagune ekonomikoak babes horretan eragina izaten duela eta krisialdi ekonomikoak herritarrak kolpatzen dituen heinean, geuk ere kolpe hori nolabait, zuzenean edo zeharka, nabaritzen dugula, baina egia da ere, unerik zailenetan geure komunitateak ez digula hutsik egiten.

**Pandemiaren eraginez harpidetzetan aurreikusitako murrizketak**



Pandemiaren lehen hilabete hauetan gainera, nazioartean behintzat, harpidetza digitalak asko hazi dira eta geure inguruko herrialdeetan ere hazkunde nabarmena izan da. Ziurrenik konfinamenduaren ondorioz papereko edizioak eskuratzeko arazoak egon direlako gertatu den fenomeno izan da baina denboran mantentzen bada eta, garrantzitsuena, ordainpeko harpidetza bilakatzen bada, jada garrantzitsua den bide honek pisu handiagoa har dezake eta horrela hedabideen egonkortasuna bermatzen lagundu.

Nazioartean publizitatearen erorketak suposatzen duen diru-sarreraren erorketari aurre egiteko harpidetza kanpaina bereziak abian jarri dira eta, dirudienez, emaitza onak izaten ari dira. Geure kasuan ere izan da horrelako kasuren bat baina oraingoz ez da orokorra eta badirudi, esan bezala, ondorengo hilabeteetarako lehentasuna orain arteko harpidetzei eustea izango dela. Ikusteko dago etorkizunak zer ekarriko duen eremu honetan baina espero dezagun, aurrerantzean ere, herritarren babesa herri ekimeneko euskal hedabideen indarguneetako bat izaten jarraitzea.

## Pandemiaren ondorioak


### 8. Dirulaguntzetan murrizketarik ez

Harpidetzetan bezala, dirulaguntza publikoen kasuan ere, pandemiaren lehen asteetan murrizketak kasu gutxitan gertatu dira, alegia, hedabide gehien gehienek (%95) ez dute murrizketarik izan. Bi hedabideek soilik erantzun dute murrizketak izan dituztela eta bi kasuetan murrizketa hori %20 baino txikia izan da. Dirulaguntza publikoen epeak zernolakoak izaten diren kontuan hartuz, normala ere bada hain epe laburrean aldaketa handirik ez gertatzea.

Azken urteotan sektoreak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakunde publiko nagusiekin garatutako prozesuari esker lortutako eredu berriak hiru urterako konpromisoak biltzen ditu, nahiz eta kasu batzuetan (AFaren eta BFaren kasuan) konpromiso horiek urteroko deialdi bidez izapidetu, eta eremu horretan ez da aldaketarik izan. Aipatutako murrizketa horiek udalen eremuan gertatu dira.


Dena dela, badira ohiko dirulaguntza deialdiekin harreman zuzena ez duten bestelako laguntzak ere (egitasmo zehatzak, urteurren ekitaldiak...) eta horiek izoztuta daudela dirudi. Horrek, noski, kezka eragiten du hainbat hedabideetan, aurreikusitako hainbat dinamika bertan behera utzi beharko dituztelako eta horrek, nola ez, eragina izango du urteko plangintza edota kontuetan.

**Pandemiaren eraginez dirulaguntzetan izandako murrizketak**



Edozein kasutan, dirulaguntza publikoen eremu honetan kezka iturri nagusia aurrera begirakoa eta ohiko deialdien ingurukoa da. Sistema berriak gutxieneko ekoizpen eta autofinantzaketa maila batzuk ezartzen ditu eta pandemiaren ondorioz, hainbat hedabidek zailtasunak izan ditzake eskatutako maila horietara iristeko. Erakunde publikoetako arduradunek, justifikazio garaian, egoera berezi honek eskatzen duen malgutasunarekin jokatu dutela jakinerazi diguten arren, oraindik ez dago argi malgutasun hori nola garatuko den eta horrek kezka eragiten du hainbat hedabideren artean.

**Pandemiaren eraginez dirulaguntzetan aurreikusitako murrizketak**



Pandemiaren ondorioak orokorrak eta anitzak izango dira eta ondorengo hilabete edota urteetan erakunde publikoek sektore desberdinen premia eta eskariei erantzun beharko diete. Testuinguru berezi horretan, erakunde publikoek sektorearekin adostutako dirulaguntza sistema berriari eusteak berebiziko garrantzia hartuko du. Alde batetik urteetako ahaleginaren ondorio delako baina batez ere sistema berri horren helburua horixe bera delako, sektorearen egonkortasuna bermatzea.

Aurreko krisialdi ekonomikoaren ondorioak gainditu gabe oraindik, eta sektoreak orokorrean bizi duen eredu krisiaren erdian, herri ekimeneko euskal hedabide askorentzat hil ala bizikoa izango da erakunde publikoen konpromisoa. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakunde publiko nagusiekin adostutako dirulaguntza eredu berria mantentzeaz garantzago, berau osatu eta hobetzeko pauso berriak eman beharko dira; eta berdin udalen kasuan ere, ezinbestekoa izango da azken urteotako konpromisoa mantendu eta, ahal den heinean, areagotzea.

Pandemiaren ondorioak


## 9. Lantaldeetan aldi baterako murrizketak

Pandemiari aurre egiteko ezinbestekoak edo lehen mailakoak ez ziren aktibitate ekonomikoak bertan behera utzi dira eta horrek milaka eta milaka lan kontratu etetea eragin du. Asko aldi baterako etenaldiak izango dira baina zoritxarrez, iragarpen guztien arabera, behin betikoak ere asko izango dira, gehiegi.


Hedabideen kasuan, pandemiari aurre egiteko ezarritako araudiak aktibitatearekin jarraitzeko aukera eskaintzen du, baina ikusi dugunez, arrazoi desberdinengatik hainbatek jarduera eten edo egokitu behar izan dute.

Honela bada, geure hedabideei beren lantaldeetan murrizketarik egin duten galdetuta, hamar hedabidetik bik (%21) murrizketak abian jarri dituzte beren lantaldeetan eta abian jarritako kontratu etenaldi horiek 27 langileri eragiten diete. Kasu gehienetan (%81) kontratu etete horiek aldi baterako dira eta gainerakoen kasuan (%19) ez dakite behin behinekoak ala behin betikoak izango diren, alegia, oraingoz behintzat herri ekimeneko euskal hedabideetan ez da behin betiko kontratu eteterik abian jarri.

Pandemiaren eraginez lantaldeetan abian jarritako murrizketak




Murrizketen izaera



Bestalde, ez dakitela dioten kasu horiek bost hedabide desberdinei dagozkie eta horietako bakoitzean kontratu etenaldiak langile bakarrari eragiten dio, hortaz, oraingoz murrizketak behin behinekoak dira eta gainerako kasuetan behin betiko eteteak bilakatuko balira ere, kasu sakabanatuak eta langile bakarrari eragingo lioketenak lirateke.

**Pandemiaren eraginez lantaldeetan abian jarritako murrizketak**



Aurrera begira baina, egoera ilunago eta zalantzakorrago antzematen da: murrizketa gehiago aurreikusten dira eta kasu gutxi badira ere, behin betirako izango diren lehen kontratu eteteak aurreikusten dira. Beren lantaldeetan murrizketarik aurreikusten ez duten hedabideen ehuneko %54ra erortzen da eta %8 dira murrizketak egitea aurreikusten dutenak. Oraingoan baina, bi multzo horiei beste multzo handi bat gehitzen zaie, ez dakitela dioten hedabideena, izan ere, ondorengo hilabeteetan lantaldeak murriztea aurreikusten duten galdetuta, hedabideen %38ak ez dakiela erantzun du.

Ikus daitekeenez, oraingoz aurreikusten diren lan kontratuen eteteak mugatuak dira (11 langileri eragiten diete) eta kasu honetan ere gehienak (%46) aldi baterako kontratu eteteak izango dira. Hala ere, jada abian jarri diren kontratu etete guztiak aldi baterako ziren bitartean, kasu honetan, alegia, aurreikusten direnen kasuan, %18 behin betiko kontratu eteteak izango dira. Gainera, beste zenbait kasutan (%36) ez dakite kontratu eteteak behin behinekoak ala behin betikoak izango diren eta hori ere bada kezkatzeko beste arrazoi bat.

Dena dela, datu hauek guztiak tentu handiz hartu beharreko zenbakiak dira, izan ere, ehuneko horien atzean dauden kasu kopurua oso txikia da (behin betiko eteteak 2 eta ez dakiten kasuak 4).

**Tentuz handiz hartu beharreko datuak dira, ehunekoaren atzean dauden kasuen kopurua oso txikia delako**

Denborak erakutsiko du kasu gutxitan oinarritutako ehuneko hauek joera bat erakusten duten ala une jakin bateko argazkia besterik ez diren, baina orokorrean zantzuak ez dira batere onak. Dena dela, berriro ere azpimarratu behar da, oraingoz behintzat, kasu gutxi direla herri ekimeneko euskal hedabideetan lanean ari diren ehunka lagunak kontuan hartuz. Jakin badakigu hedabide txiki askotan langile bakar bati kontratua eten behar izatea sekulako galera dela, are gehiago, aurrez ere murrizketa gogorrek egin behar izan ditugula kontuan hartuz, baina orokorrean aurreikusten diren murrizketen kopurua mugatua da.


Atal honetan ere iruzkin asko jaso ditugu, besteak beste, egoera berezi honetan aurreikuspenak egitea oso zaila dela azpimarratuz. Orokorrean hedabideek lantaldeei eustea lehenetsiko dute eta ahal duten guztia egingo dute bidean inor gera ez dadin. Dena dela, hori guztia diru-sarreretan gerta daitezkeen aldaketen arabera izango da eta horretarako funtsezkoa izango da, besteak beste, erakunde publikoek hartutako konpromisoari eustea.

### Pandemiaren ondorioak

## I0. Egitasmo zehatz asko bertan behera

Honez gero argi dago COVID-19aren birusa eragiten ari den pandemia hau eremu desberdinetan herri ekimeneko hedabideen ohiko jarduna baldintzatzen ari dela: ekoizpenean eta hedapenean argi eta garbi, publizitatean nabarmen, harpidetzetan eta dirulaguntzetan gutxiago... Bada, ondorio zuzenak eragiten ari den beste eremu bat egitasmo zehatzena da.


Galdera honi hedabide gutxiagok erantzun dioten arren (24 erantzun jaso ditugu) emaitzak argigarriak dira: pandemiaren ondorioz egitasmo zehatzen bat bertan behera utzi behar izan ote duten galdetuta, hamarretik zazpik (%71) baietz erantzun dute, horrek suposatzen duen guztiarekin.



Kirol edota kultur mailako ekitaldiekin lotutako egitasmo zehatz asko landu ezinik gelditu dira, ekitaldiak ezin izan direlako egin edo atzeratu direlako. Aurrez ere aipatu dugu, aurtengoan bazirela urteurrenak eta antzekoak ospatzeko abian jarritako hainbat dinamika eta horiek ere, oraingoz behintzat, bertan behera gelditu dira. Era berean, hainbat hedabidek berrikuntzarekin lotutako egitasmoak eten edo atzeratu behar izan dituzte.

Eta ondorengo hilabeteotarako aurreikuspenek, zoritxarrez, antzeko panorama iragartzen dute: hamar hedabidetik seik (%63) ondorengo hilabeteotan egitasmo zehatzen bat bertan behera utzi beharko dutela aurreikusten dute. Ikus daitekeenez, gai honen inguruan jasotako erantzunen arabera, egoerak apur bat hobera egingo du edo hori da behintat hedabideek aurreikusten dutena, baina orokorrean, zantzu guztien arabera, egoerak tamalgarria izaten jarraituko du.

#### Egitasmo zehatzen bat bertan behera uztea aurreikusten dute



Atzeratu diren ekitaldi edo gertaeren inguruko egitasmo zehatzak berrartzeko aukera egon daiteke eta une hauetan garatu ezin izan diren bestelako egitasmoak ere aurrerago lantzeko ahaleginak egingo dira baina, orokorrean, egitasmo zehatz asko bertan behera geldituko dira eta hori oso berri txarra da gurea bezalako sektore batentzat. Hedabideak egonkortzen hasteko lehen pausoak ematen hasiak ginen honetan, berriro ere, geure ahalmen guztiak garatu ezinik geratu gara eta horrek geure eskaintzari ez ezik, euskararen normalizazio prozesuari ere eragiten dio. Esan bezala, espero dezagun eten diren egitasmo horietako asko aurrerago berrartu eta garatzeko aukera izatea, hedabideongatik baina batez ere egitasmo horien hartzaile edo erabiltzaileengatik.



Barne inkestaren


# II. Ondorio nagusiak

Apirilaren 8tik 28ra egindako inkestari esker, pandemiak bere lehen asteetan herri ekimeneko euskal hedabideen jardunean izandako ondorio nagusiak aztertzeko datuak eskuratu ditugu. Orokorrean pandemiari aurre egiteko hartutako neurriak eraginkorrak izan direla esan dezakegu, ehunka lagunek osatzen duten kolektiboan, COVID-19aren birusak jotako bi kasu besterik ez baitira zenbatu. Era berean, baldintza oso zailetan, oro har, ekoizpenari eutsi zaio eta hein handi batean, moldaketa eta egokitzapenekin, hedapenari ere bai.

Egindako ahalegin horrek erantzun paregabea izan du herritarren aldetik eta kontsumoak gora egin du euskarri guztietan, baina bereziki digitaletan. Hekimen elkarteetan biltzen diren komunikabideetako 50 webguneetako trafikoaren hazkundera nabarmena izan da: aurtengo martxoan iazkoan baino 1,9 milioi saio gehiago batu dira (+ %80), ikusitako orrialdeak 3,6 milioi gehiago izan dira (+ %63) eta agian garrantzitsuena, aurtengo martxoan iazkoan baino 500.000 erabiltzaile gehiago zenbatu dira (+ %59), atari horiek guztiak kontuan hartuz. Trafiko hazkundera orokorra izan da, mundu mailakoa, baina euskarazko komunikabideen kasuan, lortutako emaitza horiek berebiziko garrantzia dute eta etorkizunera begira erronka eta aukera berriak iradokitzen dituzte.

Inkestaren emaitzekin jarraituz, diru-iturrien atalean jada, pandemiaren lehen asteetan publizitatean murrizketa handia gertatu da eta ia hedabide guztiek pairatu dituzte murrizketak eremu honetan. Ondorengo asteetan emaitzak hain txarrak ez izan arren, hein batean erakunde publikoek zenbait hedabideetan pandemiaren inguruan txertatutako iragarkiengatik izan da eta ondorioz, ohiko iragarleak itzultzen ez badira, iragarki publiko horiek desagertu ahala, berriro ere, martxoko edota apirilako errealitate gordina itzul daiteke. Hori ekiditeko ezinbestekoa izango da, besteak beste, ondarreko aste hauetan erakunde publikoek hedabide batzuetan egindako ahalegina orokortzea eta, ahal den heinean, iraunkor bihurtzea.

Pandemiaren eraginez izandako eta aurreikusitako murrizketak



Harpidetzen eremuan gertatutako murrizketa aldiz, oso txikia izan da eta hedabide gehienek ez dute beren harpidetza edo bazkidetzetan murrizketarik izan. Dirudienez izandako murrizketa txiki horiek, oro har harpidedun berriak lortzeko kanpainarik egin ez delako gertatu dira, lehen aste horietan, hilabetero izaten diren ohiko alta eta baje ordez, bajak soilik zenbatu direlako. Kasu honetan, oraingoz, ez dago kezkatzeko arrazoi handirik baina ikusteko dago zer gertatuko den ondorengo hilabete edota urteetan, aurreikusten den krisialdiak milaka herritarren bizi-baldintzak okertzen baditu. Ziur gaude herritarrek, orain arte bezala, ahal duten guztia egingo dutela herri ekimeneko euskal hedabideok aurrera jarrai dezagun, baina zantzu guztien arabera, hainbati oso zaila egingo zaieo babes hori mantentzea.

Dirulaguntza publikoen kasuan ere ez da murrizketa handirik izan pandemiaren lehen asteetan eta izan direnak udalen eremuan gertatu dira. Sektorearentzat oso garrantzitsua da eremu honetan atzerapausorik ez gertatzea. Izan ere, azken urteotan sektoreak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakunde publikoekin garatutako prozesuari esker, abian da herri ekimeneko euskal hedabideen egonkortasuna bermatzea helburu duen dirulaguntza eredu berria. Eredu berri horren helburu nagusia sektorean baldintza duinagoak bermatzea izaki, aurrerantzean ezinbestekoa izango da eredu berri hori mantentzeaz harantzago, berau osatu eta hobetzeko pauso berriak ematea; eta berdin udalen kasuan ere, ezinbestekoa izango da azken urteotako konpromisoari eustea eta, ahal den heinean, areagotzea.

Lantaldeei dagokienez, pandemiaren lehen asteetan zenbait hedabidek aldi baterako murrizketak abian jarri dituzte baina oro har, ez da behin betiko kontratu eteterik egon. Aldiz, ondorengo hilabetei dagokienez, aurreikuspenak ez dira hain onak eta badirudi zenbait kontratu behin betiko eten beharko direla. Dena dela, oraingoz kasu gutxi dira eta espero dezagun etorkizunean gehiagora ez joatea. Herri ekimeneko euskal hedabideok, beti bezala, ahal dugun guztia egingo dugu lantaldeei eusteko eta espero dugu herritarrek zein erakundeek ere, beren babes mantenduz, ahal duten guztia egingo dutela aurreko krisialdietako egoera errepika ez dadin. Geure sektoreko lanpostuak beste edozein eremukoak bezain garrantzitsuak dira. Pertsona horien lana gainera, euskararen normalizazio prozesurako estrategikoa da eta informazio eskubidea eta adierazpen askatasuna bermatzeko ezinbestekoa.

Inkestaren emaitzeko amaitzeko esan, pandemiaren ondorioz egitasmo zehatz asko bertan behera gelditu direla. Dena dela, espero dezagun eten diren egitasmo horietako asko aurrerago berrartu eta garatzeko aukera izatea. Horretarako baina, ezinbestekoa izango da, aurrez aipatu bezala, hedabideen egonkortasuna bermatzeko helburuz abian jarritako biderei eustea eta, berriro ere, murrizketen eta biziraupenaren dinamikara itzuli behar ez izatea, hedabideongatik noski, baina batez ere egitasmo horien guztien hartzaile edo erabiltzaileengatik eta horrek gure hizkuntzaren normalizazio prozesuan suposatzen duen guztiagatik.

Oro har, aurrerantzean ere sektore estrategiko gisa aintzat hartuak izateko arrazoiak ez dira falta. Osasun-krisi honetan, legez, oinarritzko sektoretzat hartuak izan gara eta ahal dugun guztia egin dugu lanean jarraitzeko, herritarrei pandemiaren berri zuzen eta eguneratua eman ahal izateko. Parean baina, pandemiaren aurrean hartutako erabakiek, zuzenean edo zeharka, diru-iturri desberdinetan murrizketak eragin dituzte eta horrek, jada bizi izan ditugun eta gainditutzat eman nahi ditugun garai ilunak ekartzen dizkigu gogora.

Kosta ahala kosta lortutakoari eutsi behar zaio, eta ahal den heinean lortutakoa hobetzeko pauso berriak eman. Hori da sektorearen egonkortasuna bermatzeko eta berarekin euskararen normalizazio prozesuan pauso esanguratsuak emateko bide bakarra. Lan asko eta ahalegin handia egin da gauden tokiraino iristeko eta hasitako bidea emankorra izaten ari da. Jarrai dezagun elkarlanean bidea egiten eta gaindi ditzagun etor daitezkeen traba eta oztopoak elkarrekin. Gutziontzako errazagoa izango da eta herritarrek eskertuko digute.